



EBAZPENA, Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariarena, DBHko eta Batxilergoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeen arteko prestakuntza-ibilbideak ezartzen dituen.

21/2009 Dekretuak, otsailaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoan unibertsitateaz kanpoko ikastetxeen sarea antolatze eta planifikatzeko irizpideak ezarri zituen. Dekretu horren arabera, eskola-mapa tresna bat da, kalitatezko hezkuntza batek behar duen plazen eskaintza planifikatzeko. Dekretuak ezinbesteko printzipio hauek ezartzen ditu: ekitatea, ikasleak batera biltzea, hezkuntza-eragileek parte hartzea, erakunde publikoen arteko elkarlana eta erantzukizunak partekatzea, baliabideak arrazionalizatzea eta hobeto erabiltzea, eta malgutasuna, hezkuntza-eskaintza gaur egungo gizarte-egoetara eta egoera demografikoetara egokitzeko orduan.

Era berean, 1/2018 Dekretuak, urtarrilaren 9koa, ikasleak onartzeko eta eskolatzeko prozedura arautzen duena hezkuntza-arloko eskumena duen sailaren mendeko Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoetan nahiz itunpeko ikastetxe pribatuetan (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Oinarrizko, Erdi-mailako eta Goi-mailako Lanbide Heziketako ikasketetan), baita oinarrizko lanbide heziketa ematen duten udal-titulartasuneko ikastetxe publikoetan ere onartzen duenak, bere 7. artikuluan ezartzen du ikasleen onarpena gauzatzeko, Hezkuntzako lurralde-ordezkariek, Plangintzako Lurralde Batzordeetan gaia eztabaidatu ondoren, eta guraso-elkarteen federazioei iritzia eskatuta, lurralde historiko bakoitzari dagozkion atxikipenak ezarriko dituztela hezkuntza-arloko eskumena duen sailaren mendeko ikastetxeentzat.

Halaber, Hezkuntzako lurralde-ordezkariek itunpeko ikastetxe pribatuen artean ere ezarriko dituzte atxikipenak, haien titularren eskariz, eta, betiere, aurretik ikastetxe horien arteko atxikipen-ituna aurkezten bada. Eskaera titulartasun bereko ikastetxeentzat egiten bada, itunaren ordezkari izango da idatzizko adierazpen bat, atxikipena ezartzeko borondatea agertuko duena.

Horrenbestez, dekretu horren arabera:

EBAZTEN DUT:

Lehena.- DBHko eta Batxilergoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeen arteko prestakuntza-ibilbideak argitaraztea. Informazio hori ebazpen honen eranskinean agertzen da.





Bigarrena.- Ibilbide horiek indarrean egongo dira ebazpen hau argitaratzen den egunetik aurrera, eta 2026-2027 ikasturte osoan; hurrengo ikasturteetan ere indarra izango dute, baldin eta ibilbideon edukia aldatzen ez bada.

Hirugarrena.- Etorkizunean aldaketarik egiteko, beste ebazpen batzuk eman eta argitaratu beharko dira; halakoetan, dena den, dagokion ikasturtean ikasleak onartzeko epea hasi baino lehenago argitaratu beharko dira.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren data

Eugenio Jimenez Ibañez
IKASTETXE ETA PLANGINTZA ZUZENDARIA